



ALKIZAKO BARNETEGIAREN ARAUDIA

ETXE BARRUAN

- v Gure etxea Gipuzkoako Gotzaitegiarena da, eta Alkizako Erretoreak, pertsona bat du etxeko arduradun nagusi gisa izendatua.
- v Monitoreak ez daudenean, beharren bat izanez gero, arduradunarengana jo behar duzue. Telefono zenbakiak bulegoan daude.
- v Erabilera desegokiaren ondorioz, etxean gerta daiteken edozein hausketa edo bestelako arazorik balego, arduradunarekin hitz egin beharko duzue, edota gutariko batekin komentatu.
- v Garbitzailea (arduraduna bera), egunero pasatzen da garbiketa orokorra egitera ikasleak gosaltzera joan eta gero. Ordurako oheak eginda eta arropak eta oinetakoak txukun jasoak egon beharko dute.
- v Berogailuaren mantenua arduradunari dagokio. Debekatua dago eskuoihalak (toailak) erradiadoreen gainean uztea.
- v Ohe gainean, hurrek ezin izango dute inola ere saltoka edo jolasean ibili, bat baino gehiago apurtu baita.
- v Barnetegiak dituen ikus-entzunezko nahiz bestelako aparagailuei buruzko informazioa, irakasle-monitoreek emango dizuete. Galdetu beldurrik gabe.
- v Haurrak goiko solairuetara igotzen direnean etxeko zapatilak jantzi beharko dituzte, horretarako beheko solairuan prestatu dugun lekuan.
- v Gauetan bereziki, mesedez, beheko solairuko eta ganbarako argiak itzaltzeaz arduratu.
- v Bat-batean, etxean argirik gabe geratuz gero, sarrerako atearen ezker aldean dagoen kutxatxo batean automatikoak saltatu duen erreparatu, eta horrela bada, beherantz dagoen teklatxoa gorantz jarri.

HERRIAN, JOLASLEKUAN, JANTOKIA

- v Janariarekin arazoak dituen ikaslerik balego, etorri aurretik jakinarazi mesedez irakasle-monitoreei.
- v Jangelara joateko errepidea zeharkatu behar denez, nahiz eta kotxe gutxi ibili, arretaz ibiltzea eskatzen dizuegu.
- v Jangelan ikasle arduradunei laguntzea eskatuko zaie: ontziak pilatzen, zerbait banatzen...
- v Hurrek herri ingurua errespetatu behar dute.
- v Udaletxearen aginduz, herriko eskolakoek soinketa edo psikomotrizitaterako beste lekurik ez dutenez, lehenasuna dute frontoia ikastordu barne erabiltzerakoan.
- v Haurrak, jolasgarai librea dutenean, ez dira plaza ingurutik irtengo.
- v Plazan arriskutsu gerta daitezkeen petriletan, haurrak ibil ez daitezten, arreta berezia jar dezan eskatzen diogu irakasleari.

BESTE ZENBAIT GAUZA

- v Ikasleek ezin dute egonaldian zehar etxera telefonoz deitu (salbuespenak salbuespen)
- v Ikasleen gaixotasun edo istripuen aurrean, egin behar denari buruzko informazioa, barnetegira etortzean emango zaizue.
- v Egonaldiaren amaieran, monitoreek bideo kamerarekin grabatutako guztiaren kopia emango zaizue.
- v Taldean behar bereziak dituzten ikasleak izanez gero, jar zaitezte mesedez alde aurretik gurekin harremanetan.
- v Taldeak hala erabakitzen badu, ikasle bakoitzak euro bana ekar dezake, erabakitako egunean gastatu ahal izateko.
- v Kanpoan daudenean, jolasean aritzeko, baditugu barnetegian kiroletako zenbait material: erraketak, pilotak, baloiak...

ORDUTEGIA

8:15ean: Jaiki, garbitasun pertsonala eta logelak txukundu.

8:45ean: Gosaria.

9:15etatik 13:30era: Ekintzak irakasle-monitoreen gidaritzapean.

13:30ean: Bazkaria. Denbora libre. (Eguraldi oztoporik ez badago, ikasleak kanpoan egotea komeni da. Ezin da logeletan jolasean ibili).

15:00etatik 18:30era: Ekintzak irakasle-monitoreen gidaritzapean.

20:00etan: Afaria.

22:30ean: Isiltasuna.

Oharra:

Egonaldian bertan, elkarrekin osatuko dugu asteko programazioa, eta orduan hitz egingo dugu zuen ardurez eta partaidetzaz.

Barnetegiari buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzue, edo bete beharreko dokumentazioa lortzeko, bisita ezazu gure web orrialdea www.barnetegiak.net/alkiza .